AMAIUR IKASTOLAN EUSKALKIARI SARRERA EMATEKO PROIEKTUA

1.- EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Izena eta egoera administratiboa

"Amaiur Ikastola" Nafarroako Hezkuntza Departamenduko ikastola publikoa da. Hezkuntza etapa hauek hartzen ditu: Haur Hezkuntzako 2. Zikloa eta Lehen Hezkuntza. Maila bakoitzean bi lerro ditu.

Irakaskuntza euskaraz ematen da, D ereduan, eta hizkuntza murgiltze ereduaz baliatzen gara ikasleen eskolatze lehen unetik aurrera.

Gaztelania hizkuntza Lehen Hezkuntzako 3. mailan hasten da irakasten.

Atzerrriko hizkuntzaren (ingelesa) irakaskuntza Haur Hezkuntzako 2. mailan hasten da.

Laguntza zerbitzuak: Ikastolan badira Orientazio, Pedagogia Terapeutikoa eta Logopedia Zerbitzuak.

Irakasle ez diren langileak: Gaur egun hiru funtzionamendu laguntzaile eta zonaldeko arduradun bat aritzen dira lanean ikastolan.

Jantokiko langileak: hamaika hezitzaile daude, haien artean batek administrazio ardura hartzen du eta besteak gai pedagogikoei dagokiona.

Instalakuntzak

Ikastolan badira jarraian zehazten diren gela eta aretoak: musika, antzerkia, ingelesa, informatika, laguntza eta logopediarako gelak; liburutegia, jantokia, tutoritzak, irakasleen gelak, erabilera anitzetarako aretoa, zuzendaritzaren bulegoa, orientatzailearen bulegoa, soinketa gela, aldagelak, dutxak, pilotaleku estalia eta jolastokia.

Hiri kokapena eta sarbideak

Amaiur Iruñeko Iturrama auzoan dago eta bere ikasleak ondoko auzo hauetatik datoz: Iturrama, Donibane, Ermitagaña, Mendebaldea eta Etxabakoitz. Iruñeko beste auzoetatik, zein Iruñerriko herrietatik ere etortzen dira ikasleak.

Bada eskola-garraioa: autobus batek Mendebaldea- Ermitagaina-Donibane ibilbidea egiten du eta beste bi autobusek Aranguren eta Galar bailaretatik ekartzen dituzte ikasleak

Irakasleak

Egun, baliabide pertsonal hauekin kontatzen da:19 irakasle-tutore, 3 ingelesa irakasle, Gorputz Heziketako irakasle bat, Musika irakasle bat, Orientatzailea, Haur Hezkuntzako Laguntza irakaslea, Pedagogia Terapeutikako irakaslea, Erlijio irakaslea eta logopeda, azken bi hauek beste ikastetxeekin konpartiturik.
Gelako ikasle kopurua, batez bestekoa, 20 ikaslekoa da.

Ikasleen ezaugarri kualitatiboak

Irakasleak maila ertaineko familietatik datoz, gehienek gaztelania dute ama hizkuntza. Emaitza akademikoak orokorrean erdi mailakoak edo altuak izaten dira. Arlo instrumentalak dira ikasketa arazoak dituzten ikasleengan zailtasun handiena ematen dutenak.
Ikasleen ehuneko handi batek Ikastolako Guraso Elkarteak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du: kirol hastapen eskola, futbito, irristaketa, dantza, soinketa, xake, plastika eta musika.

Familia igurunea

Familien parte hartzea ikastolako antolamendu egituretan onargarria da oro har (Eskola Kontseilua, Guraso Elkartea eta Lan Batzordeak).

Guraso Elkartea

Bada Guraso Elkarte bat batzordetan antolaturik lan egiten duena. Bere funtzionamendua Barne Araudian zehazten da.

Ikastetxeak eta ikasleek duten ingurugiroa

Amaiur Ikastola hiri-auzo batean kokaturik dago. Familien maila ekonomikoa ertaina da orokorrean. Auzo honetan ez dago kontutan hartzeko arazo aipagarririk.

2.- HASI BAINO LEHEN HARTU BEHARREKO ZENBAIT ERABAKI / OINARRI

- Landuko den euskalkia Nafarrera izanen da, eta honen barruan, gure ikastolaren inguruko zonaldeetan ematen diren zenbait aldaera.
- Programaren berri ikastolako Euskara batzordean emanen da, bertan aztertuko da eta honi buruzko erabakiak hartuko dira. Ondoren zikloko bileretara ezagutaraziko da eta adostasuna lortuz gero, Klaustroan aurkeztuko da proposamena, Plangintzari hasiera emateko.

3.- HELBURUAK

3.1. Helburu orokorra: Nafarroako euskalkiak eta aldaerak landu, ikasleek euskalki hauen zenbait aldaera identifikatzeko gai izan daitezen.

3.2. Helburu zehatzak

- Hiztegiko zenbait hitz, kanta eta esaera ezagutu.
- Gure inguruko hizkerak ezagutu eta identifikatu
- Hizkuntzaren ikuspegi zabala eman.
- Euskalki, aldaera eta hizkera desberdinen balioaz ohartarazi.

4.- EDUKIAK

Edukiak adinaren arabera sailkatuko dira:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. Zikloa:

- Euskalkiaren zenbait hitz eta ipuin ezagutu.
- Kanpaldia egiten den mailetan, herrian hitz egiten den hizkeraren zenbait ezaugarri ezagutu.

Lehen Hezkuntzako 2. Zikloa:

- Euskalkiaren hitzak, esapideak eta ipuinak ezagutu.
- Kanpaldia egiten den mailan, herrian hitz egiten den hizkeraren zenbait ezaugarri ezagutu, landu eta erabiltzeko gai izan.

Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa

- Euskalkiaren hiztegi orokorra, esapideak, esaera zaharrak, errefrauak, ipuinak eta kontakizunak ezagutu.
- Kanpaldia egiten den mailan, herrian hitz egiten den hizkeraren ezaugarri nagusiak ezagutu, landu eta erabiltzeko gai izan.

5.- BITARTEKOAK

Erabiliko ditugun bitartekoak hauexek izanen dira:

- Liburuak
- Ipuinak
- Euskalkietako hiztegiak
- Fonotekatik hartutako grabaketak
- Ikastolako irakasleak (bertakoak eta hemengo euskalkia ezagutzen dutenak)
- Ikasleak (bertakoak eta hemengo euskalkia ezagutzen dutenak).
- Kanpaldiak egiten diren herrietan hitz egiten den euskalkia ezagutzen duten pertsonak: hauek gelara ekarri, grabaketak egin eta gelan entzun eta aztertu.
- Herrian bertan egonaldia egiten denenan, bertako pertsonekiko harremana.

6.- METODOLOGIA

Erabiliko diren baliabide didaktikoak:

- Ikasleei ipuinak euskalkian kontatu eta han ageri diren hitz edo esapide bereziak identifikatu.
- Ipuinak edo kontakizunak idatzirik eman, ulertzen ez dituzten hitzak eta esaldiak azpimarratzeko, ondoren guztion artean landu eta aztertu.
- Euskalkiko hitz eta esaera berezien zerrendak egin eta ikasi.
- Ipuinak antzeztu ikasitako hauek erabiliz.
- Herrietako egonaldiak baino lehen, hango hizkeraren ezaugarriak ezagutu, landu eta ikasi.
- Herrian gauden bitartean bertakoekiko harremanak bultzatu, ikasleek hizkera zuzenenan entzuteko, ulertzeko, ezagutzeko eta baloratzeko aukera izan dezaten.

7.- JARDUERAK

Ondoren zehazten dira ikasleekin egin daitezkeen zenbait jarduera:

- Euskara batuaren alfabetoa

Azalpena:
Transkripzio fonetiko bat euskarara pasa. Horren ondoren, batuaren hurrenkera alfabetikoa paratu, transkripziotik hartutako hitz bana proposatuz letra bakoitzeko.
Zer landu: ortografia; ezaugarri dialektalak maila guztietan.

- Euskalkietako lexikoa

Azalpena:
Taldeka antolatuta, talde bakoitzak hiztegi bana hartuko du: Erroibarko hiztegia, Baztango hiztegia, Sakanako hiztegia, Erronkariko hiztegia, Ultzamako hiztegia...
Bost bat hitz aukeratuko dituzte taldeko. Talde bakoitzak bere hitzak ozenki esan ondoren, nork bere hiztegian begiratu beharko du ea halakorik den. Azkenik talde bakoitzak kointzidentzien berri emanen du. (halakorik izatekotan), eta aurkitutako hitz interesgarrienak aipatuko ditu.
Zer landu: lexikoaren ugaritasuna eta aniztasuna.

- Bi hizkeraren gonbaraketa linguistikoa

Azalpena:
Bi hizkeraren traskripzio bana erkatu eta bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak berezi.
Zer landu:
Hizkuntzaren alderdi guztiak lantzen ahal direla.

- Ingurunearen aldaketa ezagutu

Azalpena: Gure inguruko eskualde bateko hizkera baten transkripzio luze bat aztertu. Eduki etnografiko nabarmena duen baten bat komeniko zaigu. Garai batetik hona desagertu diren edo, aldiz, hutsetik sortu diren usadio, ohitura eta gauza materialen zerrenda eta azterketa egin.

Zer landu: lehengo eta oraingo bizimoduen arteko aldea.

- Herriaren hizkera bertan ezagutu

Azalpena: Ikasleek herrian dauden bitartean, bertako haur zein helduei grabaketak egingo dizkiete. Ikastolan grabaketa hauen transkripzioak egin eta hitz eta esaera berezien zerrendak atera. Euskara batuarekin alderatu eta dauden desberdintasun eta kointzidentziak aztertu.

Zer landu: Herri hizkeren eta euskara batuaren arteko berdintasunak eta desberdintasunak aztertu.

8.- EPEAK

Euskalkiak lantzeko programazioa, ikasturteko azken hiruhilabetean landuko da, trimestre honen bukaeran kanpaldiak egiten baitira.

9.-EBALUAZIOA

Probak prestatuko dira programatutako helburuak bete diren frogatzeko.

Hauek era askotakoak zan daitezke:

- Ipuin batean euskalkiko hitzak ezagutu eta ulertu.
- Antzerkitxoak egin euskalkiko formak erabiliz.
- Grabaketak entzun ondoren, euskalkiko berezitasunez jabetu eta ulertu.
- Idazkiak egin ikasi duten hiztegia eta esaerak erabiliz.

Lanaren egileak:

ANA IZKUE eta ANA LOS ARCOS